

# Blanchett: “Nahiago nuke politikan beldurra zineman bezala zirrarara bihurtu ahalko bagenu”

SERGIO BASURKO

Cate Blanchettek Donostia Saria jaso aurretik *Rumours* filma aurkeztu du prentsaurrean. “Nahiago nuke politikan beldurra zineman bezala zirrarara bihurtu ahal izango bagenu”, adierazi du aktoreak, eta *Tár* (Todd Field) filmean gorpuztu zuen orkestra-zuzendaria bezalako pertsonaia konplexu eta “desatsegin” baten azalean sartzeko jarraitu zuen prozesuarekin alderatu ditu munduaren bilakaera markatzen duten dinamikak geopolitikoak.

“Izututa nengoen paperarekin. Ez nekien nola antzestu, baina egoerari buelta ematen ikasi nuen”, aitortu du aktore onenaren Oscarrerako izendapena eman zion lan hari buruz. Blanchettek bere ibilbidean zehar “aukera handiak” eman dizkioten zuzendari “apartekin” lan egin ahal izan duen “zorte handia” adierazi du.

Proiektu berri batean murgiltzerakoan, senez jokatzeko duela hausnartu du: “beste lan batzuen ondoren onartzen dituzun paperak, azkenean, aurretik egindakoaren aurkako antidotoa dira modu inkontzientean”.

Australiarrek sariek artisten ibilbideetan duten garrantzia balioetsi du. “Kritikariek edo zeurea ez den kultura batek zure lana estimatzen dutenean, esanahi sakona du niretzat. Sariak ez ditut inoiz arinki hartzen, baina bestalde ere harritu egiten naute”, argitu du.

Aitortu duenez, antzerkia da bere “maitasun handia”; hein handi batean ikuslearekiko duen hurbiltasunagatik. “Publikoaren erantzuna ber-bertatik somatzeko aukera ematen dizu; eta zineman, aldiz, distantzia handia egoten da normalean, *streaming*arekin bereziki;



JORGE FUENBUENA

eta, nahi izanez gero, ezin duzu jakin zenbat jendek ikusi duen zure filma”, kritikatu du.

Halaber, *Carol* filma bere ibilbideko lanik txalotuenetako bat da izan da hizpide. “Oraindik asko dago egiteko LGBTI egoera pantailetan irudikatzeke, baina baita kameraren atzean ere”, ohartarazi du. Hala ere, azken hamarkadan emandako urratsak “positibotzat” aldarrikatu ditu. “Hamar urte behar izan genituen *Carol*/burutzeko, inork ez baitzuen finantzatu edo banatu nahi. Gauregun pantailan irudikatuta dauden pertsonen dibertsitatearen paisaia eta filma estreinatuta zenean zegoena guztiz desberdinak dira; horrelako istorioak filmatu ere ez ziren egiten”, esan du.

Blanchettek Nazioarteko Goya sa-

“Aukeratzen dituzun rol berriak, azkenean, inkontzienteki, aurretik egindakoen aurkako antidotoa dira”

ria jaso zuen 2022an, eta “espainiar egileak” berarentzat “eragin handia” izan dutela aitortu du. Urte horretan bertan, Pedro Almodovarren ‘Manual para mujeres de la limpieza’ egokitzapenaren protagonista izango zela iragarri zen. Zuzendariak, azkenean, uko egin zion proiektuari, ingelesezko proiektu handi bati aurre egiteko prest ez zegoelako.

Hura izan behar zuen bere lehen luzea ingelesez, alabaina, azkenean Julianne Moore eta Tilda Swintonekin batera gauzatu du asmoa, *The Room next Door* filmea lekuko. “Pedrok eta biok etengabe hitz egiten dugu. Espero dut egunen batean elkarrekin lan egin ahal izango dugula”, amaitu du aktoreak.

An actress who runs on instinct as if it were gasoline

Cate Blanchett appeared before the media as soon as she landed in the city to receive what will actually be the first Donostia Award at the 72nd San Sebastian Festival and responded to a wide variety of questions about her career. She said that she relied on her instinct when accepting projects: “I run on instinct as if it were gasoline,” and she also claimed that she never takes awards lightly. “When a culture that is not yours appreciates your work, it is profoundly meaningful. I am enormously grateful”.

As for the roles that had marked her the most, she said that she had worked with some wonderful directors who often saw something in her that she hadn’t seen herself, which is what happened in *Tár*, by Todd Field. Asked about her acclaimed role in *Carol*, by Todd Haynes, she recalled how difficult it had been to produce the film at the time because of its LGBTI theme as no one wanted to finance or distribute it, but that fortunately nowadays there was a lot more diversity in how sexual identity was represented on the screen.

## San Telmo Museoa

Euskal gizartea atzo  
Euskal gizartea gaur

La sociedad vasca de ayer  
La sociedad vasca de hoy

La société basque d’hier  
La société basque d’aujourd’hui

The Basque Society of the past  
The Basque Society of the present

STM  
San Telmo Museoa

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

DK  
donostia  
kultura

Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia / San Sebastián  
T (00 34) 943 48 15 80  
www.santelmomuseoa.eus

@santelmomuseoa  
   

